

Udako Postal Lehiaketa



Uztailaren 5etik
Irailaren 5era arte

POST-ONTZI

Udako postal lehiaketa

Gauekoak aisialdi-programak eta *ALEA Arabako aldizkariak* elkarlanean antolatutako udako postal lehiaketa bat da Post-Ontzi.

Modernizazio eta teknologialgabidera bultzatu dituen baliabide analogikoak erabili eta sustatzeko, udako postal deialdi hau proposatzen dizuegu. Ba al dago munduan *souvenir* dendaren bat postalak saltzen ezdituena?

Edonora zoazela, postal original, polit edo desberdin bat bidali beharko diguzu, zure oporren inguruan zerbait kontatuz, amodiozko istorio bat asmatu edo BIC boligrafo batekin marrazki bat eginez. Zeren zain zaude?

1. GAIA:

Gaia askea izango da. Umorea, bizipenak, uda, marrazkiaketa abarrekoak zure eginez, udako egun beroak islatu beharko dituzue.

2. PARTE HARTZAILEAK:

- 16-30 urte (biakbarne) izatea.
- Gasteiztarrak izan behar dira edota Gasteizen bizi, ikasi edo lan egin.
- Ezdira taldean aurkeztutako lanakonartuko.

3. PARTE HARTZEKO EPEA:

- Uztailaren 5etik irailaren 5ra arte.

4. LEHENENGO KATEGORIA: Postalen bidalketa

Bidaliguzu udan egon zaren tokitik postal bat!

- Postalak helbide honetara bidali beharko dira:

GAUEKOAK

Calle Madrid Kalea 4, 8ezklizda

Vitoria-Gasteiz, Araba CP:01002

- Gaia librea da. Originaltasuna eta berezitasuna baloratuko dira.

- Testua euskaraz izan behar du.

- Zuen parte-hartzea bermatzeko, postala bidetik galtzekotan, bidalguzuz postalaren bi aldeetako argazkia info.gauekoak@gmail.com helbidera.

Mezuan agertu beharreko datuak: Izen-abizenak, telefono zenbaki bat, eta postalaren izenburua eta postalaren argazkiak bi aldeetatik.

Parte hartzeko modua:

1. Postal bat egin (argazki edo marrazki batekin) edo erosi.
2. Sormena aske utzitzertatu zure udako bizipenak irudi batean, marrazki, argazki, zirriborro edo nahiago duzun formatuan.
3. Erosi zigilua eta pegatu zure postalean.
4. Guri mezu bat bidali beharrezko informazioarekin.
5. Bilatu gertuen duzun postontzia eta bertara bota.
6. Heltzen denera arte itxaron.

- Epaimahai profesional batekaueratuko ditu bi lan irabazleak. Originaltasuna eta kalitatea baloratuko dira.
- Ez da kontuan hartuko izenburu edo/eta bidaiaren azalpenik gabeko postalik.
- Nahi beste postal bidal daitezke. Egile beraren lan bat baino gehiago saritua suertatzekotan, sari bakarra jasoko du.

4.1. EPAI MAHAIA ETA EPAIA -LEHENENGO KATEGORIA: Postalen bidalketa

- Aurkeztutako lanak Gauekoak Aisialdi programako bi kidek, eta ALEA Arabako Aldizkaria taldeko bi kidekosatutako epaimahai batek baloratuko ditu.
- Epaia ematerako orduan **baloratuko da:**
 - Originaltasuna, testuen kalitatea eta euskararen erabilera egokia.

- **Epaia 2024ko irailaren 13an jakinaraziko da.**

5. BIGARREN KATEGORIA: Irudia +Izenburua Udako postalak sortzeko kategoria. Jasotako irudiak postal bihurtuko ditugu.

Parte hartzeko modua:

1. Sortu postal bihurtu nahi duzun euskarria (argazkia, irudia edo marrazkia).
2. ALEA Aldizkariaren webgunean propio egongo den atalean igo.

5.1. EPAI MAHAIA ETA EPAIA -BIGARREN KATEGORIA: Udako postalak sortzeko kategoria

- ALEA Aldizkariaren webgunean eginiko **bozka herrikoiak erabakiko ditu bi lan onenak.**

- **Epaia 2024ko irailaren 13an jakinaraziko da.**

6. SARIAK:

- **LEHENENGO KATEGORIA: Postalen bidalketa -Bi saridun.**
 - Interrail Global Pass bat -5 egunekoa.
- **BIGARREN KATEGORIA: Udako postalak sortzeko kategoria -Bi saridun.**
 - Parral Tabernan 2pertsontzako bazkaria.
 - Errigora saski bat.

* Sariakezingo dira metatu.

* Irabazleakezingo balu sariazgozatu, hirugarren pertsona bati emateko aukera izango du antolakuntzarekin horrela adostuz gero.

7. ERAKUSKETA ETA INAUGURAZIOA.

Irailaren 20an egingo da erakusketaren inaugurazioa, jasotako lan guztiekin. 19:00etan LABE Gazte Laborategian (San Vicente de Paúl, 21).

- Beharrezkoa izango da, irabazle suertatuz gero, inauguraziora joatea.

8. IRABAZLEEN BETEBEHARRAK.

· Postal erakusketaren inaugurazioa: Irabazle suertatuz gero, parte-hartu eta aurkeztutako lanaren inguruko 10 minutuko azalpen bat ematera konprometitzen zara.

9. OHARRAK.

- Aurretik aipatutako puntuekin edozein zalantza argitzeko, jarri gurekin harremanetan info.gauekoak@gmail.com helbidean.
- Aurkeztutako postalak Gauekoak-en esku geratuko dira eta erabiltzeko eskubidea beretzat gordeko du, betiere egilearen izen-abizenakaipaturik.
- Lehiaketaren antolatzaileakbidalitako lanen batean baldintzak betetzen ez direla edota lanak kutsu iraingarria duela ikusten badu, automatikoki lehiaketatik kanpo geldituko da eta ez da argitaratuko.
- Parte hartzean, aipatutako oinarriak baita epai mailaren erabakiakere onartzen dira.
- Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebatzea.

Tratamenduaren arduraduna	Vitoria-Gasteizko Udala -Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz(IFK- CIF: P0106800F)
Tratamendua egingo duena	IKUDEA XXI S.L.
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak	Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 -informacion@vitoria-gasteiz.org -www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezariaren kontaktu datuak	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak	Gasteizko gazteentzako kultura eta aisialdi sortzaile, osasungarri eta parte-hartzailea sustatzeko programaren (GAUEKOAK) kudeaketa.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatzbati edo gehiagori begira.
Hartzaileak	Datu pertsonalik ezzaie hirugarrenei lagako.
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.